

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Bazkideak Bertako eta Lantegi Batuakeko langileak dira. Gure hornitzaile nagusiak berriz, Azpeitiko dendak dira, Sorgin gazte moda. Azpeitiko dendek, produktuak eskuratzen dizkigute ekintza desberdinetarako; horren truke, guk beraien produktu eta erropak patrozinatzen ditugu aplikazioan.



Gure proiektuko bazkideak Gureak eta Lantegi Batuak izango dira. Bertako zuzendaritzarekin hitzarmen bat egin genuen eta bertakoen laguntza izan genuen gure aplikazioaren proiektua aurrera ateratzeko. Hitzarmenari esker, jakin genuen aplikazioa zer gaian zentratu behar genuen.

Hornitzaileak gure proiekturako garrantzitsuak dira, jantziak ematen dizkigutelako, bestela jantzi horiek guk erosi beharko genituzke. Azpeitiko dendek gure proiektuaren berri izan zutenean, dei bat jaso genuen esanez gure proiektuan parte hartzeko prest zeudela, ideia interesgarria iruditu zaitzaielako. Elkartu eta gero, akordio batera iritsi ginen eta orain gure hornitzaileak dira.

Gure aplikazioan, hilabetean behin zozketa bat egiten da. Bertan, erabiltzaileek aukera dute beraien jantziak igo eta sari bat irabazteko. Hilabete bukaeran "outfit" onena aukeratzen digu. Sari hau gure hornitzaileak diren Azpeitiko dendek eskuratzen digu.

Laburbilduz, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen aliantza estrategikoak egingo ditugu. Aliantza mota hauetan parte hartzen duten enpresen negozio-ereduak desberdinak dira, eta elkarrekin lanean aritzea bi aldeentzako onuragarria izan daiteke.